

Hezkuntzako zuzendari nagusia

Roberto Pérez Elorza

Iruñean jaio zen, 1966an.

Zaragozako Unibertsitateko lizentziaduna da Ingeles Filologian. Honako titulu hauek ditu: Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eta Certificate of Proficiency in English, Cambridge English Language Assessment-ena.

1990ean Bigarren Hezkuntzako Ingeleseko irakasle postua eskuratu zuen oposizio bidez. 2000-01 ikasturtean Burlatako Askatasuna BHIko idazkari izan zen, eta 2001-2006 artean, institutu horretako zuzendari.

2007tik 2015era Hezkuntza Departamentuaren Euskara Ataleko aholkulari izan zen, EGAko Batzorde Ofizialaren kidea eta departamentu horretako ordezkari ALTEn (Association of Language Testers in Europe).

2015ean Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio, Kalitate, Prestakuntza eta Bizikidetzak Zerbitzuko zuzendari izendatu zuten. Eta 2016ko abuztuan, Hezkuntzako zuzendari nagusi.